

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko irailaren 3a / 684. zenbakia

MONTERRON PARKEA GAI XO

ONDDOAK: zuhaitz askori *Cerambycidus* izeneko intsektu motak eraso egin die azken urteotan, eta barrua jan die zuhaitzei, hustu arte. Horren ondorioz, kaltetutako zuhaitzek egonkortasuna galdu egin dute eta jausi egin daitezke, bereziki, haize zakarra dabilenean. Era berean, zuhaitz gehienak oso zaharrak dira, XVIII. mendekoak.



ORAIN ETA HEMEN: UHOLDEA UDAL ARTXIBOAN/8 • KIROLA: BITTOR AMOZARRAIN G-2AN/11

AZALA: ALEX AZKARATE

GREMIOEN GIDA/20

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 3**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ZAPATUA, 4**
Corcuera, M. Aranbarri 1. 943 79 22 26
- DOMEKA, 5**
Español, Araba etorb. 14. 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 6**
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09
- MARTITZENA, 7**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 8**
Corcuera, M. Aranbarri 1. 943 79 22 26
- EGUENA, 9**
Español, Araba etorb. 14. 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 10**
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguatoriora. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DVA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZAK**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

GOIKOBALUREN ENTSEGUAK
Helduen taldea martitzenean, hilaren 7an, hasiko da, Arrasate Musika Eskolan, 21:00etan. Kide berriak 20:30ean hasiko dira. Hortik aurrera, entseguak martitzenetan (Musika Eskola, 21:00-22:00) eta eguenetan (San Frantzisko Xabier gunea, 20:00-22:00) izango dira. Goikobalu Gazte eguaztenean hasiko da, 19:30ean; Goikobalu Txiki eguenean, 18:45ean; eta Goikobalu Izartxoak egunean, 18:00etan.

BIR-ZIKLETA AZOKA
Hilaren 11n, 14an eta 16an, *Bir-zikleta* azokarako materiala jasoko dute, 14an eta 16an, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara; eta irailaren 11n goizez. Azoka plazan jasoko dituzte, eta azoka hilaren 18an izango da.

ARRASATE MUSIKAL
Arrasateko Musika Eskolak irailaren 8an zabalduko du izena emateko epea. Lau urtetik aurrerakoendako.

ARGAZKI LEHIAKETA
Udalak *Autorik gabeko astea* argazki lehiaketa antolatu du DBHko ikasleendako. Eskolara bidean ikusten dituzten oztopen argazkiak irailaren 20a aurretik behar dituzte.

AEDren AGENDA

EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA
Seaskak eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak 164 euskal abestiz osatutako poltsikoko liburuxka argitaratu dute. AEDn dute salgai, oso merke.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


San Frantziskoko erretaula konponduta

Sitsak jota eta erortzeko arriskuan zegoen San Frantzisko elizako erretaula. 1695ean Jakobo Ayesta eta Rafael Larralde bergarrek egin zuten. Gastuaren %50 Aldundiak ordaindu zuen eta gainontzekoa, berriz, frantziskotarrek Udalari eta aurrezki kutxei eskatu zieten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Tripazilla"



Zilborrari deitzen zaio *tripazilla*.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Isma Zubia oñatiarrak Atenasko Olinpiar Jokoak berbagai izan ditu.

Oporretatik bueltan Arrasate Irratiak ere martxan ditu mikrofonoak

Agindu bezala Arrasate Irratiko langileak udako oporrak amaitu eta indarberrituta lanera bueltatu dira. Astelehenean hasi ziren mikrofonoaren aurrean hizketan. Hala ere, irailean gauden arren, irratiak udako kutsuarekin segituko du; hain zuzen, *Uda giroan* saioa izango duzue entzungai hilabetea bukatu bitartean. Aste honetako saioetan, bada, hainbat laguneren oporrak izan ditugu gehienbat hizpide nagusi, eta berauetako batzuk berreskuratu egingo ditugu asteburuko

gainbegiratuan. Isma Zubia oñatiarra, adibidez, Atenasen izan da Olinpiar Jokoetan ikusle moduan parte hartzen. Gustura asko bueltatu zen etxera eta makina bat kontu ekarri zituen kontatzeko. Bittor Amozarrain arrasatearra ere irratiaren izan da astean, uztailearen 26an Pakistango G2 gailurra egin ondoren.

Bestalde, Leire Kortabarría *Goienkaria*-ko lankidea Menphisen izan da, eta Leirek ekarritako kontuak ere asteburuan errepikatuko ditugu.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 25	10 °C
MAXIMOA Martitzena, 31	26 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,3 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 25	24 °C 10 °C 0,3 l/m²
Eguena, 26	20 °C 15 °C - l/m²
Egubakoitza, 27	25 °C 10 °C - l/m²
Zapatua, 28	25 °C 12 °C - l/m²
Domeka, 29	26 °C 14 °C - l/m²
Astelehena, 30	22 °C 13 °C - l/m²
Martitzena, 31	26 °C 15 °C - l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko elkarrizketak:** Isma Zubia, Atenasen; Bittor Amozarrain, G2 mendian; Leire Kortabarría, Menphisen; Josemarí Velez de Mendizabal, Jokin Zaitegiren gainean...
- DOMEKA**
10:00 **Asteko elkarrizketak.**
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 **UDA GIROAN**
Albisteak.
Elkarrizketak.
Estilismoaren tartea.
Hondartzak, igerilekuak eta urtegiak.
Eguraldi iragarpena.
Zozketak, zorion-agurrak...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:15 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**
- 14:00 **UDA GIROAN errepikapena.**
- 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Gruen huelgiek euki dau eragiñik zugaran? Ze pentsau jatzu huelgie?



JOKIN BARBARIAS
Ikasle



JOXE MARI GURIDI
Erretiraue



IKER IBARRA
Ikasle



DOLORES FERNANDEZ-RIVERA
Langillie



MIREN LASAGABASTER
Langillie



MAITANE ZABALOA
Ikasle

Ez. Kotxiek arazoren bat eukituko billdur apur bat euki dogu, baiñe larregi be ez. Problema nahiko haundixe da, baiñe seguru grua-kuek euren arrazoiek euki-dittuela.

Neuri ez dust askorik eragin, ez nazelako kotxien ibiltten. Semiek inbiltten naz noixien behin, eta ha arduratute egongo da, baiñe neu ez. Kejetako motibue badaukie, ondo egitten daue.

Ez dust eragin, baiñe bide baztarrien kotxe asko ikusi dittut. Gruakuek ez daue nahikue irebazten, eta seguru nau aseguradorak ez dauela dirurik galtzen; euren esku dau.

Neuri ez dust eragin, baiñe argi dauket konpondu biherreko problemie dala. Kontsuelo modure, horrenbeste auto bide bazterrien ikusitite bestiok polikixeu ibilli gare.

Bai, eragin dust, eta zelan gafiñera! Geure kotxie Sevilan geratu zan, eta ezin izen geuen ekarri. Baiñe behintzet ez da bide baztarrien egon, garaje baten egon da.

Neuri ez dust eragin, baiñe neure anaiei bai. Bidien zenbat kotxe dauzen ikusitiek ze pentsau emuten dau. Anaiei kale erdixen geratu jakon kotxie, eta edarra preparau euen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK GALTZADA-HARRIAK KONPONTZEN Sail honetan birritan eman dugu aditzera erdialdeko zenbait kaletako galtzada-harriak solte daudela. Horien eraginez, hainbat lagun jauzi egin dira eta, horrez gain, euria egin duenean herritar asko busti egin dira. Zorionez, Udala hasi da solte zeuden hainbat galtzada-harri konpontzen, eta horri esker aipatutako arazoak saihestuko ditugu.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8	KIROLA /10	KULTURA /12
0-3 urteko haurtzaindegia	Mondraren aurkezpena	Kooperatibak eta immigrazioa
Herri Eskolak bultzatutako 0-3 urteko haurtzaindegia lanak urri arte atzeratuko dira.	Mondra Futbol Taldeak bihar, zapatua, hasiko du denboraldia Oiartzunen zelaian, 17:00etan.	Udalak ibarreko kooperatibismoaren eta immigrazioaren gaineko liburu bat kalera-tu gura du.

ASTEKO DATUA

25

URTE PASA DIRA JOKIN ZAITEGI HIL ZENETIK

Abuztuaren 17an, 25 urte bete ziren Jokin Zaitegi idazle eta itzultzaile arrasatearra hil zela. Garrantzi handia izan du gizon horrek euskal kulturari, eta merezi du hura gogoratzea.

BESTEKE SANA

“Monterrongo zuhaitz handienek 150 urte inguru izango dituzte. Orain dela gutxi moztutako haritz baten eraztunak zenbatu nituen eta gutxienez 130 urte zituen (...). Baliteke zuhaitz bakan batzuek urte gehiago izatea, eta parkea bera baino zaharragoak izatea, baina orokorrean gazteagoak dira, eta, esaterako, sekuoiak seguruena ez ditu 150 urte baino gehiago izango. (...) Azkeneko 10-14 urteotan 21 zuhaitz jausi dira. Batez beste, urtean zuhaitz handi bat edo bi jausten dira. (...) Parkea zaharra da berez, zuhaitz zaharrenak ahulak dira eta ondoek kalte handia egiten diete. Horregatik, zuhaitz horiek ezegonkor bilakatzen dira. Beraz, ez da gaixotasun bat, prozedura naturala baizik”

GABRIEL IGUÍÑIZ
‘EL DIARIO VASCO’/04-08-21

HERRITARREN BERBAK/ Ander Etxeberria



Kolorearen pendulua

Oporretatik bueltan eta beltzaran. Edo beltzaran egon behar. Larruazal zuria erakutsiz gero, erruki! Idatzirik ez dagoen arau baten arabera, udaldian behintzat ezin daiteke azaroko azal kolore berdina izan. Eta bestela, “lanean egon zara?”, “bentetan leku horretan ibili zarela oporretan?”, eta antzerakoak entzun behar. Hain errotuta dago ideia, beste mota batekoak ere badaudela: “Gaixorik ez zara egongo?”. Horrelakoak denok ezagutzen ditugu, hartzaila edo emaile bezala, udako hizketa horiek eguraldiari buruz igogailuan egiten direnak bezain arruntak dira eta.

Hala eta guztiz ere, lehen, pendulua beste aldean zegoen. Araua ez zen hori, kontrakoa baizik. Ondo ikusita zegoena azal zuria zen. Mendebaldean estatus altuaren adierazgarrietako bat larruazal zuria zen, eguzkipeko lanera behartuta ez

baitzeuden dirudunak. Jende apala, ordea, ortuan eta basoan, adibidez, aritzen zen. Eta beraz, komentarioak entzun behar zituztenak azken hauek ziren. Gure artean, herriko nagusi batzuek oraindik gogoratzen dute nola beraien aurrekoek arroz hautsa jartzen zuten aurpegian zuriago agertzeko.

Aldaketa XX. mendeko bigarren hamarkadan hasi zen, gizarte gero eta urbanoago baten. Diotenez, Coco Chanel moda diseinugile famatua beltzaran itzuli zen bidaia batetik, eta

maila sozial altuetan azal xigortuaren balioak gorantz jo zuten, besteak beste aisialdirako aukerekin erlazionatu zutelako (bidaiak, kirola, etab.), aukera hori aberatsek bakarrik baitzuten.

Gaur egun, teknikari esker, edozeinek eta edozein garaitan har dezake brontzearen kolorea. Kolore estimatua, norbaiten edo zerbaiten eraginez pendulua berriro mugimenduan jarri arte.

“Lehen ondo ikusita zegoena azal zuria zen. Mendebaldean estatus altuaren adierazgarrietako bat larruazal zuria zen”

Arrasate PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berebizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale



ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



ASTEABIHITZETAN

Maalako Errabala txukuntzeko lanak

Abuztu amaieran Maalako Errabalako zorua txukuntzeko lanean ibili ziren langileak. Kontua da kale horretako zoruko harri batzuk aske zeudela, egoera txarrean. Abuztuan Arrasateko kaleetan egon den lasaitasuna aprobetxatuta, Biteriko aparkalekuak egiten dabilzan Bikani enpresako langileak Maalako Errabalan izan ziren lanean.

Lanok egiteko, Maalako Errabalako kalea itxita egon zen autoendako.

Erregai moduan erabiltzeko pilekin lanean

MCCk, Cegasak eta ikerketa-zentroak diren Ikerlan eta Cidotec enpresek hiru urterako hitzarmena sinatu dute erregai moduan erabil daitezkeen pilak sortzeko. Sinatzaileen esanetan, era horretako pilek etxetresna txikietarako zein handietarako balioko lukete, baita automobil elektrikoendako ere.

Orain arteko pilek bezala, erregai moduan erabiltzeko pilek energia elektrikoa sortuko lukete, baina modu erabat ezberdinean. Gainera, abantaila mordoa izango lituzkete: energia gehiago eta hobeto emateaz gain, gutxiago kutsatuko lukete-eta.

MUko ikasleen %99,3k lana aurkitzen dute

Hori dio, behintzat, Mondragon Unibertsitatearendako Egailanek egin duen ikerketak. Ikerketa horren arabera, ikasketak amaitutakoan gizonetako batez beste 2,3 hilabete behar dituzte lana aurkitzeko, eta 3,7 hilabete emakumezkoek. Gainera, ikerketaren arabera, MUn ikasi duten ikasleen %80 baino gehiago oso gustura geratzen dira izan duten heziketarekin, eta modu onean baloratzen dituzte bertako irakasleak eta irakaskuntza maila. Gainera, lana aurkitzen duten erdiek kontratu mugagabeak izaten dituzte.

**Bostehun ikasle baino gehiago Alecopen**

Joan den ikasturtean MUko 536 ikasle izan ziren Alecopen lanean. Hala, ikasten duten bitartean, enpresa horrek egun erdiz lan eginez dirua irabazteko aukera ematen die ikasleei. Alecop kooperatiba 1966an sortu zuten, eta datuen arabera, azkeneko hamar urteotan sei mila ikasle inguruk egin dute lan Arrasateko enpresan.

**USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran***Udan, kirola*

Aurtengo udara arte ez diet inoiz Joko Olinpikoiei jaramonik egin. Aurten, berriz, proba batzuk gustura ikusi ditut. Eske-rrak, telebistako gainontzeko saiok atzera botatzen zutelako. Badakit jende askok ikusten dituela, baina txutxu-mutxu saiok gero eta nazka handiagoa ematen dute, eta telebistako programazioan ez dago ia besterik.

Kirola derrigorrez egin behar izan dutenak Iruñeko Alde Zaharreko bizilagunak dira. Yolanda Barcina alkateak hamar urteotan auzoan lan handia egin duen Jai Alai gaztetxea itxi du, eta horretarako arriskuan ipini du auzo guztia, legez kanpoko eraispenarekin eta polizia indarkeriarekin. Erabiltako metodoek emango dute zeresana.

Barcinaren ustezko aitajaunak ez du kirolik egiten, baina ez du atsedetik hartu gura. Fragar ari naiz. Horrek aditzera eman du seguruenik Galiziako hauteskundeetara aurkeztuko dela beste behin. Francoren ministro izan zenetik gaur egunera arte egin duen ibilbidearekin, hobe luke behingoz begi bistatik desagertuko balitz. Horrek ere Francok, Pinochetek eta beste askok moduan ez du inoiz kartzelarik zapalduko.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

UOLDE BATEK UDAL ARTXIBOARI KALTE HANDIA EGIN DIO

Udaletzeko langileek ezuste handia hartu zuten joan den astelehenean. Dirudienez, abuztuan Udala Artxi- boan dagoen kutxatila bat apurtu eta ura isurtzen ibili zen. Abuztu bukaeran, langile batek zer bait sumatu zuen eta ordurako urak ia metro erdiko altuera hartuta zeukan. Uholdeaz jabetu bezain las-

ter, langile mordoa artxiboko dokumentuak erre- kuperatzen hasi ziren. Bustita dauden dokumen- tuak Uarkapera eraman dituzte lehortzera, eta lehorrak Oñatira eramango dituzte. Uholdeak miloi bat paper kaltetu ditu, horietako batzuk antzina- koak, baina espero dute guztia errekuiperatzea. /I.B.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel.: 943 79 48 77 ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE




KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

ARRASATEKO TXALAPARTA TALDEA ZELTA JAIALDIAN, LEONEN


Arrasateko Txalaparta Taldeko sei lagun Leongo Bierzo bailaran dagoen Salentiños herrian izan ziren, uztailaren 16an eta 17an. Asteburu hartan, hango bizilagunek zelta jaialdia antolatu zuten, eta txalaparta zelta instrumentua ez bada ere, Arrasateko taldea jaialdira gonbidatu zuten. Harrera ezin hobea edukitzeaz gainera, txalaparta jo zuten bakoitzean ikusmin handia sortu zuten. Kontzertuak eta beste hainbat ekintza izan ziren jaialdian, eta mondragotarrak ezin gusturago itzuli ziren handik.



URIBARRIKO JAIETAN, BOLOETAN ETA MEZETAN JENDE ASKO, BAINA DANTZAN INOR ERE EZ

Jone Bergaretxek, Uribarriko auzo alkateak, esan digu Uribarriko auzoko jaietan giro polita izan zela, eta eguraldiak lagundu zuenez jende asko hurbildu zela: "Ikustekoa da San Bartolome egunean mezetan zenbat jende egon zen, eta baita gero egon zen luntxean ere. Auzoko bazkarian ez zen inor falta izan, eta mus txapelketak eta bolo txapelketak ere

arrakasta handia izan zuten, baita bertsolariek ere. Baina hori normala da, punta-puntako bertsolariak ekarri genituen-eta: Amuriza, Peñagarikano eta Mañukorta. Hori bai, auzo honetan inork ez du dantza egiten". Bolatokia dela-eta, Uribarrikoa bota egingo dute: "Ez dakigu zer egingo dugun, baina Uribarri ez da Uribarri bolatoki barik".



Otalaria kale azpi inguruan dabilta lanean, Aramaio erreka txukuntzen, kolektorea eraiki ahal izateko.

HIRIGINTZA/ Ur zikinak batzeko kolektorea

Aramaio erreka garbitzeko kolektorea ipintzen dabilta

UBANE MADERA

Arrasateko ur zikinak batzeko kolektorearen lanak Aramaio errekaraino iritsi dira. Oporren aurretik hasi ziren lanak egiten eta hilabete eta erdiren ostean, Etxe Txikietaraino doan lur-azpiko ubidea txukundu dute. Hala ere, bi urtez jardungo dute lan guztiak bukatu arte.

Deba ibaia eta Aramaio erreka elkartzen diren puntuan hasi eta Gesalibar auzoraino iritsiko da Aramaio errekan ipiniko duten kolektorea, herriko ur zikinak batzeko hodia. Hain zuzen ere, proiektu horren lehenengo zatia egiten dabilta orain: bi errekek elkartzen diren lekuan hasi eta Otalarako Muxibarko biribilgunea arteko zatia (guztira, 700 bat metro).

Kolektoreko langile Camilo del Castillo kontatu digun moduan, zati horri dagozkion lanak hasi besterik ez dituzte egin; garbiketara lanak egiten hasi dira. Hori bai, dagoeneko egin dituzte

aldaketak zati horri dagokionez. Izan ere, hasierako proiektuaren arabera, Maalan zehar, erreka gainetik (errepidearen pare inguruan) sartu behar zuten kolektorea. Horrek eragozpenak eragingo lizkieke herritarrei, besteak beste, errepidea itxi egin behar luketelako. Orain, berriz, egoera berrikusi dute eta erabaki

dute erreka gainetik barik, errekan bertan eraikitzea kolektorea. Horri esker, eragozpen gutxiago sortuko dute.

Lehen aipatu dugun moduan, 24 hilabeterako lanak izango dituzte Aramaio erreka kolektorea egiten; guztira, 6.000 metro eraikiko dituzte, 12 milioi euroko aurrekontuarekin.

Laster, ibaiak garbi

Aramaio erreka kolektorea egin aurretik, Deba ibaiko kolektorea eraiki dute Arrasaten. Hain zuzen ere, Eskoriatzan hasi eta Roneoraino eraiki dute kolektore hori. Eta dagoeneko igartzen da Deba ibaia dezente garbiago datorrela. Hala, Aramaio erreka ur zikinak batzeko kolektorea ipintzen dutenean, orain arte Deba eta Aramaio ibaietara isurtzen ziren ur zikinak Epeleraino bideratuko dituzte. Era berean, Oñatiko ur zikinak ere Epelera bideratzea da asmoa. Han, Epelen, ur araztegia eraikiko dute datozen urteotan eta horri esker hemen inguruko ur zikin guztiak garbitu eta berriro ere Deba ibaira botako dituzte garbi-garbi.

Udalak hitzarmena sinatuko du San Josepe harrobiarekin

U.M.

Udalbatzarrak azkeneko osoko bilkuran erabaki zuen hitzarmena sinatzea San Josepe harrobiarekin. Helburua da harrobiko txukuntze lanak bukatzea, gune hura industriale moduan erabiltzeko.

Orain arte hartutako erabakia aldatu eta uztaileko azkeneko osoko batzarrean udalbatzarrak onepena eman zion San Josepe harrobiarekin hitzarmena sinatzeko proposamenari. Hitzarmenaren helburua da San Josepe harrobia bere onera ekartzea, gero industriale moduan erabiltzeko. Eta hitzarmen berriaren berritasuna da hiru hilean behin San Josepe harrobiak lanen nondik norakoen berri eman beharko diola Udalari. Eta horrez gainera, Udaleko eta enpresako zenbait teknikariek zaintza batzorde bat eratu du, harrobiko lanak hitzartutakoaren arabera egiten

direla zaintzeko. EAJren, EAren, PSE-EEren, PPren eta Aralarren aldeko botoekin eta Ezker Batuaren abstentzioarekin onartu zuten proposamena. EBko ordezkari Ander Rodriguezek azaldu digunez, bi arrazoiengatik abstenitu ziren: hitzarmen berria zaharra baino hobea delako, baina era berean, zalantza dutelako harrobikoek ez dutela harrobia ustiatzen segituko.

MOZIO UGARI EZTABAIDAGAI

Horrekin batera, besteak beste, bost mozio aztertu zituen udalbatzarrak. Batetik, EBk eta PSE-EEk gizarte larrialdiekin lotutako mozioak aurkeztu zituzten. Bestetik, EBk, EAK eta PSE-EEk drogen kontsumoaren gaineko mozio bana aurkeztu zituzten. Era berean, EAJk zigilu eleaniztasunen eta posta eleaniztasunen gaineko mozio bi aurkeztu zituen, eta bukatzeko, EBk eta EAK etorkinen gaineko beste mozio bi aurkeztu zituzten.

LABUR

Automobilez atzetik jarraika ibili eta gero arrasatear bat atxilotu zuen Ertzaintzak

Abuztuaren 17an egundoko jazarpen ikusgarria gertatu zen Arrasaten. Kontua da egun hartan, gauean, kamuflatutako ertzainen auto batek geratzeko agindua eman ziola beste auto bati, modu desegokian gidatzearen. Baina bigarren autoko gidariak ez zion jaramonik egin aginduari eta geratu beharrean, ihes egiten ahal izan zen. Hori ikusita, atzetik jarraitu zioten ertzainek (San Andres, Leintzibar, Alfontso VIII., Udala plaza eta Erguindik) eta azkenean, Iturripe inguruan atxilotu zuten. Baina, hori baino lehen, Udala plazan, eta betiere Ertzaintzaren arabera, iheslariak tiro egiteko keinua egin zien, eta horren aurrean, ertzainek airea tiro egin zuten. Atxilotutako laguna Arrasaten bizi den IOS gizonak da.

Itxura berriarekin ekin dio ikasturteari Arrasateko anbulatorioak

Berritze lanak egin eta gero, anbulatorioak itxura berriarekin zabaldu ditu ateak. Oro har, lanon helburuak hiru izan dira: zentroaren erosotasuna hobetzea, zerbitzuak handitzea eta, oro har, ingurua txukuntzea. Hala, hemendik aurrera, hirugarren solairuan, besteak beste, honako zerbitzuak izango dira: traumatologia, anestesia, kirurgia orokorra, barne medikuntza, pneumologia eta erizaintza.

Horrez gainera, esan beharra dago dermatologia zerbitzua lekuz aldatu dutela eta orain antzinako ospitaleko bigarren solairuan ipini dutela. Dermatologiarékin batera izango dira oftalmologia eta otorrinolaringologia, besteak beste. Anbulatorioko arduradunek espero dute berrikuntza lan horiei esker, zentroaren itxura hobetzeaz gain, murriztea lortuko dutela itxarontzerrenda; izan ere, orain, kontsulta gehiago eskaini ahal izango dute.

Geratzen diren panteoiak aterako dituzte urrian Aldai hilerri zaharrean

Aldai hilerri zaharrean geratzen diren panteoiak datorren urritik aurrera aterako dituzte. Hori dela eta, Udalak epe bat ezarri zuen hilerri zaharrean senideren baten gorpuzkiak izanez gero, gorpuzkiekin zer egin behar den jakinarazteko. Hain zuzen ere, epe hori bi aste barru bukatuko da, irailaren 15ean. Gorpuzkiekin zer egin behar den jakinarazi ezean, San Kristobal hilerriko hezurtegia eramango dituzte. Hala, gai hori lantzeko Udalarekin harremanetan jartzeko interesa duenak Zerbitzu Sailera beharko du eta Moises Altunarengatik galdetu.

INGURUMENA/ Monterron parkearen egoera latza da

Monterron parkearekin zer gertatuko den erabaki beharko dute hil honetan

UBANE MADERA

Monterron parkearen egoera ez da batere ona. Abuztuan zuhaitzen egoeraren ikerketa egiten ibili dira zenbait aditu. Hain justu ere, atzo, eguena, edo gaur bidali behar zioten txostenaren emaitza Udalari. Edozelan ere, jakin badakite zuhaitz asko gaixo daudela.

Udalean oraindik ez dute jaso Gabriel Iguñiz Agesta adituak Monterron parkeko zuhaitzen gainean egin duen txostena, baina badakite parkearen egoera ez dela batere ona. Hala adierazi digu Zerbitzu Saileko buru Joseba Ugalde zinegotziak. Jakinarazi digunez, oraingo astean bertan jasoko dute zuhaitzen egoeraren gaineko txostena, baina ez dute albiste onak jasotzeko esperantza handirik. Are gehiago, susmoa da zuhaitzetako asko gaixo daudela eta bota egin beharko dituztela.



Parkeko zuhaitz asko gaixorik dagoela uste dute Udaleko ordezkariak; laster jakinaraziko dute egoera zehatza zein den.

eragina jakinda, erabaki dute prentsaurreko hori herritarrendako zabalik izango dela. Hau da, gaiarekin interesa duen edozein joan ahal izango da eta dituen zalantza guztiak argitu. Udal ordezkariarekin batera, prentsaurreko horretan Monterronen gaineko ikerketa egin duen aditua ere izango da, zalantza guztiak argitzen laguntzeko.

ZENBAIT FROGA EGIN DITUZTE

Abuztuan pare bat astean izan da itxita Monterron parkea. Tarte horretan, Arrasatera etorritako adituek, besteak beste, zuhaitzek zenbaterainoko indarra duten jakiteko frogak egiten ibili dira, batez ere haize handiak dabiltzanean zer gerta litekeen ikusteko.

KONTUZ IBILI BEHARRA DAGO

Hala, esandako moduan, oraindik ez ditugu esku artean froga horien emaitzak; hori bai, Monterron parkea berriro ere herritarrendako zabaldu egin dute abuztuko lanak bukatu ostean. Horrek esan gura du, ez dagoela bisitariendako berebiziko arriskurik, oraingoz behintzat. Edozelan ere, Joseba Ugalde zinegotziak nabarmendu digu haize zakarrak daudenean, behintzat, kontuz ibiltzea komeni dela. Izan ere, adituek ezin dute ziurtatu ez dela zuhaitzik edo zuhaitzen adarrik jausiko. Azken urteotan, adibidez, zuhaitz dezente jausi izan dira Monterron parkean.

EMAITZA KONTRASTATU

Joseba Ugaldek kontatu digunez, adituen txostena jaso ostean Udalaren asmoa da ikerketa hori kontrastatzea. Hain zuzen ere, Diputaziora bidaliko dute hori egiteko. Gero, handik bidaliko duten emaitzarekin eta hasierako txostenarekin testu bateratu bat egingo dute eta hori kontuan hartuta, aurrera begira zer egin erabaki beharko du Udal Gobernu Batzarrak. Zerbitzu Saileko buruak esan digunez, beranduen

jota irailaren 13an egingo den Udal Gobernu Batzarrak hartuko du Monterronen gaineko behin betiko erabakia.

Besteak beste, erabaki beharko dute zenbat zuhaitz bota beharko dituzten, eta zein den zuhaitz horiek botatzeko biderik egokiena eta zuzenena. Horrekin batera erabaki beharko dute etorkizunera begira zein tratamendu eman behar zaion Monterron parkeari: birlandatu beharreko zuhaitz

kopurua, motak... Baina, batez ere, parkearen erabilera zehatzu beharko dute. Hau da, orain arte, Monterronen kontzertuak, antzerkiak eta bestelako ikuskizunak egin izan dituzte eta kontua da posible dela halakoek eragina izatea zuhaitzen egoera eskasean. Bestalde, jendea ibiltzeko bidexkak ere eraiki zituzten parkean, eta akaso horrek ere eragin du gaur egungo egoeran. Gauzak horrela, oro har, parkea zela geratuko den eta

etorkizunean zertarako erabiliko den erabaki beharko dute. Lehen esandako moduan, irailaren 13rako egin gura dute hori.

Hala, Udal Gobernu Batzarrak erabakia hartu eta gero, egun berean, Udalekoek prentsaurrekoa deituko dute, egoeraren berri zuzen eta zabalarekin.

HERRITARRENDAKO ZABALIK

Eta gaiaren garrantzia ikusita eta herritarrengan izango duen

Bedoñabeko lanak atzeratu egin dira

U.M.

Arrasate Herri Eskolak gura zuen irailean eskaini haurtzaindegirako zerbitzu berria, baina ez da hala izango. Izan ere, eta lanak ahalik eta bizkorren egiten ibili arren, ez dute lortu egokitze lan guztiak bukatzea.

Arrasate Herri Eskolak Bedoñabe izeneko eraikinean eskainiko du 0-3 urte bitarteko haurtzaindegirako zerbitzua. Hain zuzen ere, herri eskolaren asmoa zen oraingo ikasurte hasieran zabaltzea zerbitzu berria. Hala, asmo horrekin, uztailearen 5ean San Andresko eskolako egokitze lanak egiten hasi ziren, eta uda osoan lanean ibili dira. Baina hala eta guztiz ere, ezinezkoa izan da irailaren hasierarako lan guztiak amaituta izatea.

Udaleko Hezkuntza Saileko teknikari Juanito Barberanek Arrasate Irratiari adierazitakoaren arabera, dena dela, egokitze lanak bide onetik doaz eta itxaropena dute hil honetan amaituko



Udalaren asmoa da lanak bukatu bezain laster zabaltzea zerbitzu berria.

dituztela. Era berean, hil honetan etorriko dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariak Bedoñabe ikustera eta orduan zehaztuko dute eskolan ipini beharreko ekipamendu guztia.

Hala, bada, egin beharreko guztia egin eta gero, espero dute

hil honen amaieran ez bada, datozen hilaren hasieran abiaraztea haurtzaindegirako zerbitzu berria.

Edozelan ere, eta haurtzaindegirako zerbitzuarekin lotuta, Udalak beste urtebetez esleitu dio udal haurtzaindegirako zerbitzua Arizmendi Ikastolari.



Olatxo etxea laster bota egingo dute

Lursail batekin lotutako burokrasia kontuak argitu bezain laster, bota egingo dute Maalako Errabalean dagoen Olatxo etxea. Udaleko Hirigintza Saileko teknikari-buru Juan Antonio Urdangarinek azaldu digunez, etxe hurra hondamen egoeran dago eta horregatik erabaki zuten botatzea. Asmoa zen eraispina abuztuan egitea, baina ezin izan da hala izan.

UHOLDEAK/ 40 zentimetro ur sartu da udal-artxibategira

Udal-artxibategian izandako uholdearen ondorioz, milioi bat dokumentu busti dira

UBANE MADERA

Gutxienez bi hilabete beharko dituzte udal-artxibategia berriro ere abian ipintzeko. Edozelan ere, eta urak kalte handia eragin duen arren, esperantza dute bustitako materiala ez dela galduko. Material asko busti da udaletxean, besteak beste, 1500. urteko dokumentuak.

Ezusteko latza eta disgustu handia hartu zuten astelehenean udaletxera lanera joan ziren langileek. Argindarra eten egin zen goizean eta horren zergatia ikustera joan zirenean konturatu ziren udal-artxibategia urak hartuta zegoela. Udal brigadakoek esandakoaren arabera, 40 bat zentimetro ur zegoen pilatuta han behean. Izan ere, udaletxean konturatu barik, abuztu guztian ibili da ura sartzen. Itxura denez, arazoren bat izan dute arketa batekin eta horregatik ihes egin du urak. Era berean, artxibategiak berez halako gauzak ez gertatzeko duen segurtasun sistemak kale egin du eta horregatik guztia-rengatik gertatu dira uholdeak.

LAU ORDU, URA ATERATZEKO

Egoera larri horren aurrean, ura mangerarekin atera ostean, (ia lau ordu behar izan zuten) udaletxean zeuden langile guztiak berehala hasi ziren artxibategiko materiala ateratzen. Dokumentuak, liburuak... guztia busti-busti eginda zegoen, tartean,

XVI. mendeko dokumentuak, eskuizkribuak, pergamuak... adituen esanetan, balio kalkulazieneko materiala. Guztira, milioi bat orrialde busti dira udal-artxibategiko uholdean, 180 metro apal. Oro har, Arrasateko historiaren zati handi bat zegoen artxibategian: udal kontuak, kaparetasunekoak, Batzar Orokorretako aktak, erroldak... Tartean, Arrasateko hiri-gutuna ere bazegoen, baina, jakinarazi digunez, siku-siku ateratzea lortu zuten.

IKASLEAK BEHAR DITUZTE, LANERAKO

Hala, material guztia atera ostean, halako dokumentu eta abarretan adituak direnei deitu zien Udalak, bai Gipuzkoako Artxibo Orokorreko eta Diputazioko ordezkariari zein enpresa pribatuei. Eta haien gomendioei segituz, bustitako materiala korrontea dagoen lekuetan ipintzeaz gain, (osoko bilkuren aretoan hasieran eta Uarkapen, gero) ezpain-zapiak tartekatzen ibili dira bustitakoa sikatzeko. Adituek lagunduta, goiz eta arratsaldez lanean ibili dira hiru egunez udal langileak. Eta lan horrekin jarraituko dute datozen egunotan, baina, hemendik aurrera, datozen 20 egunerako ikasleak kontratatuko ditu Udalak lan hori egiteko. Hala, horretarako gertu dauden ikasleek 943 79 09 00 telefonora deitu beharko dute, lehenbailehen.

Bestalde, busti ez den materiala Oñatira eramango dute, han



Udal langileak buru-belarri ibili dira lanean, udal-artxibategian bustitako materiala sikatzeko ahaleginean.

gordetzeko lekua dagoelako. Eta Uarkapeko materiala sikatu ahal, hori ere eramango dute Oñatira.

Era berean, eta bustitakoa sikatzeko lanak egin bitartean, artxibategia bera garbitu eta desinfektatu egin beharko dute. Hortaz, han dagoen gainerako

material guzti-guztia ere atera beharko dute datozen egunotan.

ESPERANTZA HANDIA BERRESKURATZEKO

Lehen esandako moduan, udal-artxibategiko material asko busti da uholdearen ondorioz, baina, era berean, eta adituek esandakoa kontuan hartuta, Udalekoek espe-

rantza handia dute gehiena berreskuratzeko, batez ere material zaharrena. Izan ere, adibidez, pergaman idatzitako dokumentu gehienak ez dira ezabatu eta kalteak jasan dituzten arren, ez dira horren handiak izan, antzina idatzeko erabiltzen zuten materiala oraingoa baino hobea zelako.

Bizikletak eta osagarriak salerosteko azoka txikia antolatu du Udalak

U.M.

Azken urteetan moduan, orain, irail hasieran, Autorik Gabeko Astea egingo dute Arrasaten eta gainerako herri gehienetan. Horren barruan, ekimen berezi bat izango da hemen: bizikletak-eta salerosteko azoka.

Irailaren 18an egingo dute azoka berezi hori, Seber Altuben. *Bir-Zikleta* izena ipini diote. Izan ere, bizikletak eta halako osagaien azoka txikia izateaz gain, azoka horren helburua da, besteak beste, birziklapena bultzatzea; batez ere, txiki geratu diren bizikletak-eta bota beharrean beste batzuei horiek erosteko aukera ematea. Era berean, bizikleten erabilera bultzatu gura dute ekimen horrekin. Esandako moduan, bizikletekin batera, txirringarritzarekin lotutako edozein material saldu ahal izango da azoka txiki

berezi horretan: kaskoak, errubera puzgailuak...

ESKOLETAN ZEIN AZOKAN

Azoka antolatzeke, Udalak zera egingo du: partikularrek saldu nahi duten materiala batu egingo du. Partikular horrekin materialaren salneurria zehaztu egingo du eta horren arabera, txartel bat emango diote. Gero, esandako moduan, batutako guztiarekin azoka txikia ipiniko dute Seber Altuben, irailaren 18an. Hala, norberak emandako materiala saltzea lortzen badute, gero Udalak diru hori eman egingo dio materialaren jabeari. Saltzeaz gain, materiala trukatzeko aukera ere izango da *Bir-Zikleta* izeneko azokan.

MATERIALA ZELAN ERAMAN

Materiala batzeko bi bide erabiliko ditu Udalak. Batetik, ikasleek euren eskoletara eraman behar-

ko dute saldu gura dutena. Bestetik, gainerako herritarrek Mondragones kalean dagoen azokara eraman beharko dute materiala.

EGUNAK ETA ORDUAK

Hala, bi egun zehaztu ditu Udalak azoka txiki berezitarako materiala batzeko: irailaren 11n, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Eta irailaren 14an eta 16an, 11:00etatik 13:00etara bitartean eta 17:00etatik 19:00etara; betiere, Mondragones kaleko azokan. Beraz, interesa izanez gero, materiala aukeratzen hasteko ordua da.

ARGAZKI LEHIAKETA

Bestalde, eta aste beraren barruan, argazki lehiaketa ere izango da. DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketa da. Interesa dutenek irailaren 20a baino lehen eraman beharko dituzte argazkiak udaletxera. Gaia zera da: eskolara bidean ikusten dituzten oztopoak.



Bizikletak eta material osagarria salduko dituzte *Bir-Zikleta* azokan.

BOTEPRONTUEN

Carlos Duarte Dias da Silva

CARLOS KARROZERIA

XABIER URZELAI

Carlos Portugaletik etorri zan oin dala hamabost urte eta San Josepeko taillerrien hasi zan lanien. Oin dala zortzi urte, baiñe, San Andresen jarri euen berak taillerra. Hamen, Portugalen baiño hobeto bizi dala esaten dau, baiñe gogor lan egindde.

Nundik nora ibilli zara agostuen?

Riojan egon naz, arda on apur bat edaten eta deskantsetan.

Eta, lanera bueltie gogorra izen da?

Ez, ez. Honezkero gorputze egindde daukogu askorik pentsau barik lanien hasteko.

Gruak lanien hasi diela-eta lanpetute ibilliko zarie.

Ez pentsau. Azken baten, bi lagun besterik ez gabitz hamen lanien, eta egitten dogune baiño gehixau ezin dogunez egin, betiko martxan gabitz.

Ze lan egitten dozue gehixen?

Gehixenbat txapazko golpiek arregletan dittugu.

Ze lan egitten dozu gustoren?

Gehixen gustetan jatena da apurtute dauen kotxe bat hartu eta konpondu.

Eta, gehixen kostetan jatzun lana?

Kotxe bat zuzendu dotela pentsau eta txarto dauela konturekietie. Barrero be egin biher dana.

Zeure kotxie be zuk zeuk konpondutakue da, ala?

Bai, golpie euken BMW bat erosi neuen konponketako; saltzeko asmue neuken, baiñe emaztiek geuretako izen biher euela esan eusten.

Esaten daue gerueu eta karrozero gutxieu dauzela.

Bai, hori egixe da. Karrozero ruendako lana egon badau, baiñe iñork ez dau karrozero izen gure. Gatxa da gazte bat lanera hona etortie. Kooperatiban lelengo egunetik ondo pagau biher dutzie, eta geuk ezin dogu horrekin konpetidu. Izen be, hamen, lelengo ofiziue ikesi



X.U.

“Geruau eta karrozero gutxieu dau, baiñe hamengo gaztiek ez daue gure holako lanik”

egin biher dau gaztiek.

Ze biher da karrozero ona izeteko?

Karrozero moduen lan egittie. Taillerretik urtendakuen ze egitten dozu gustora?

Berandu urtetan dot, eta ez dot askorako denporarik eukitten. Tabernan txikito bat hartu.

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Bankadie, golpie hartu dauen autuek zuzenketako biherrezkue dan aulki modukue.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondraguei?

Neuretako ez jako ezer falta.

Eta, ze dauko ona?

Neuri Mondraguetik dana gus-

“Neure lanien gehixen gustetan jatena da apurtutako kotxe bat hartu eta konpondu”

tetan jat.

Ze falta jatzu zeuri?

Gustetan jaten gauzak egitteko denporie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Lana.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena?

Egixe esatiarren, etxien ez dot gauza haundirik egitten.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Egittetekotan ondo dauen emakumeren batekin, ala? Hamen atzeko posterrien azalketan dan emakumiekin, adibidez. (Barre)

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat?

Rioja.

NIREBIDAIAHURA/ Espe Lizarralde

Egipto / 2004ko maiatzean

Oporetara joan aurretik Egiptora egindako bidaiaren berri eman zigun Espek, eta han geratu ginen, piramide, faraoi eta esfinge artean. Aurreko kapitulu desertuan utzi genituen Espe eta lagunak, Nasser lakuan gora eta behera ibili eta gero: “Luxorrera joateko autobusean 100 kilometro egin behar izan genituen desertuan zehar. Sekulako beroa egiten zuen, eta distantzia hori egiteko hiru ordu behar izan genituen. Luxorrera iritsitakoan hegazkina hartu eta Kairora abiatu ziren: “Kairo oso kaotikoa irudituz zitzaidan. Egunean zehar semaforoak apaingarri moduan erabiltzen dituzte, eta gauean hiria argiztatu baino ez dute egiten”.

Esperen esanetan, Egiptoko hiriburua ez da bakarrik ibiltzeko lekua: “Jende asko etortzen zitzaigun gauzak eskaintzera edo dirua eskatzera, eta azkenetarako nekatu ere egiten zinen. Gauza asko daude Kairon ikusteko, baina denbora guztian esaten ziguten kontuz ibiltzeko, eta azkenean lau gauza baino ez genituen ikusi. Horien artean Jan-el-jalili azokara egindako bisitaldia azpimarratuko nuke. Sekulakoa da, handia bezain zikina baina ikusgarria. Horrez gain, Tutankamonen esfingea ere ikustekoa da”. Barre egiteko astia ere izan zuten: “Kairon, Hilton hotel famatuan izan ginen, eta hango gizonen itxura ikusita gure artean esaten genuen gutxien espero genuenean Bin Ladenekin elkartuko ginela”.

Esperen esanetan, horrelako bidai bat egin eta gero hainbat egun behar dira atseden hartu eta bizi izandakoa barneratzeko. Kanpoan ibili zaretenok ere lan hori egin beharko duzue datozen asteotan. Hara eta hona ibili zaretenok animatu ARRASATE PRESSera etorri eta zuen esperientzien berri ematera; ezer ahaztu baino lehen!!!



“Kairon gauza asko daude ikusteko, baina ez bakarrik”

“Semaforoek hiria argiztatu baino ez dute egiten”

XABIER URZELAI



Espe eta lagunak Keops-eko piramidearekin batera.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidai kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



FUTBOLA

Oiartzunen zelaian hasiko du Mondrak denboraldia, bihar, 17:00etan

Josu Zubiak, Mondrako entrenatzaileak, hogeita sei jokalariz izango ditu bere aginduetara 2004/2005 denboraldiari aurre egiteko

XABIER URZELAI

Mondrak bihar hasiko du Liga Txapelketa Oiartzunen. Aurre-denboraldian, bikain ibili barik taldeak lan nahiko txukuna egin du. Eta, joan den domekan Arrasateko taldeak irabazi zuten Arrasate Hiria Txapelketa erakusten du hori.

Bihar, zapatua, Mondrak Liga Txapelketako lehenengo jardunaldia jokatuko du Oiartzunen. Arrasatearrek ondo amaitu dute aurre-denboraldia, Arrasate Hiria Txapelketa irabazten, hain zuzen.

BERGARAN TXARTO, ARRASATEN ONDO

Joan den asteburua proposa izan zen ibarreko kirol taldeek aurre-denboraldian egin duten lana aztertzeko. Zapatuan, Bergarak eta Mondrak jokatu zuten Bergarako Futbol Txapelketako finala; bergararrek irabazi zuten, 3-0. Eta, domekan, UDAk, Aloñak eta Mondrak jokatu zuten Arrasate Hiria Futbol Txapelketa. Hiruko txapelketa izan zen; talde bakoitzak 45 minutuko bi norgehiagoka jokatuz zituen, eta aurten ere etxeokak nagusitu dira. Josu Zubiaren mutilek 0-0 egin zuten oñatiarren kontra, eta aretxabaletarrei 2-1 irabazita eskuratu zuten saria.

Ez da komeni aurre-denboraldiko norgehiagokei daukatena baino garrantzi handiagoa ematea, baina herriko txapelketa irabazteaz gain, badirudi taldeak denboraldia gorputzaldi onean hasiko duela.

Bihar hasiko den denboraldirako Josu Zubiak 26 jokalariz izango ditu bere aginduetara, joan den urtean baino jokalariz bat gehiago. Joan den denboraldia amaitu zenetik bi hilabete eta erdi igaro dira, eta tarte horretan aldaketa nabarmenak izan dira Mondran. Entrenatzaile lanetan Josu Zubiak jarraituko du, eta Iker Sarabiaren laguntza izateaz gain, aurten Iban Aranguren ere izango du ondoan, besteak beste, prestatzaile fisiko lanak egiten. Delegradu moduan Jose Mari Gonzalezek jarraituko du, baina Nicasio Galan ez da Atxabalpen izango, UDA entrenatzen ibiliko da-eta.

Jokalariei dagokienez, gura baino aldaketa gehiago izan dira. Hainbat arrazoiengatik hamabi jokalariz utzi dute taldea: Mikel Calvo (Elgoibarren), Iban Roa, Jon Alkorta, Andres Castillejo (Eibarren), Jokin Pavo, Mikel Gangoit, Ekain Garin (Bergaran), Jon Muruamendiaraz (Beasainen), Andoni Uribarren eta Jon Torresek, hain zuzen. Hutsune horiei aurre egiteko nahikoa buruhauste izan ditu Mondrako zuzendari-tzak. Gabezia handiena aurrealdean igartzen zuten, eta hori kon-

pontzeko Asier Gonzalez (Aloñatik), eta Inaxio Dobao (Elgoibartik) fitxatu ditu Mondrak. Gai nontzeko aurrelariekin batera Jokin Bereziartua egongo da, gazte mailatik igo berri. Jokinekin batera igo dira Kepa Mercader, Maikel Hernandez, Andoni Nafarrate eta Julen Losada. Azken bi horiek, baina, seguruenik gazte mailako taldean jokatuko dute.

Kanpotik etorri diren beste hiru jokalariz osatuko dute taldea:

Julen Garmendia Añorgatik etorri da eta Aretxabaletatik eta Bergararik etorri dira bi mondrago-

etar: Alberto Matalobos eta Ander Ruiz de Azua, hain zuzen ere. Matalobos futbola uztekoan egon

da, baina azkeneko urtea Mondra taldean egitea erabaki du. Seguru igarriko dela erdialdean.

Mondrak Arrasate Hiria Futbol Txapelketa irabazi zuen domekan

Gazte mailatik bost jokalariz igo dituzte eta bost jokalariz etorri dira kanpotik

Aurre-denboraldiko norgehiagoketan aurrelari ondo erantzun dute

2004-2005 DENBORALDIKO PREFERENTE MAILAKO MONDRA FUTBOL TALDEA



Josu Zubiak
29 urte
Entrenatzailea



Iban Aranguren
32 urte
Prestatzaile fisikoa



Iker Sarabia
28 urte
Masajista



Jose Mari Gonzalez
Delegradu



Mikel Mondragon
21 urte
Atezaina



Ander Ruiz de Azua
22 urte
Atezaina



Aitor Pildain
22 urte
Atezaina



Kepa Mercader
19 urte
Atzelaria



Argider Arana
26 urte
Atzelaria



Markel Gonzalez
20 urte
Atzelaria



Eldin Zivojevic
24 urte
Atzelaria



Kepa Barbarias
24 urte
Atzelaria



Jon Lasagabaster
24 urte
Atzelaria



Iker Laspiur
21 urte
Atzelaria



Andoni Nafarrate
17 urte
Atzelaria



Ruben Rueda
29 urte
Erdilaria



Ander Bereziartua
25 urte
Erdilaria



Iban Garai
24 urte
Erdilaria



Iñaki Etxeberria
23 urte
Erdilaria



Jon Loiti
19 urte
Erdilaria



Alberto Matalobos
26 urte
Erdilaria



Arkaitz Garmendia
22 urte
Erdilaria



Julen Losada
17 urte
Erdilaria



Julen Garmendia
19 urte
Erdilaria



Maikel Hernandez
19 urte
Erdilaria



Jokin Bereziartua
18 urte
Aurrelaria



Inaxio Larranaga
24 urte
Aurrelaria



Iker Lopez
21 urte
Aurrelaria



Inaxio Dobao
22 urte
Aurrelaria



Asier Gonzalez
21 urte
Aurrelaria

MENDIA

"Tontorrera igotzean ez da aparteko ezer sentitzen; jaisterakoan dator poztasuna"

Bittor Amozarrain ekainaren 12an abiatu zen Nepalera, eta uztailaren 26an igo zen Gasherbrum 2 mendiaren tontorrera (8.035 metro)

XABIER URZELAI

Bittor Amozarrain da zortzimilako bat egin duen lehen mondragoetarra. Hilabete eta erdi behar izan du Gasteizko lagunekin batera G2 mendira igotzeko. Martitzenean kontatu zituen Arrasate Irratian Nepalen bizi izandakoak.

Bittor Amozarrain ekainaren 12an abiatu zen, eta itzultzeko eguna uztailaren 24a bazuen ere, izan zuten eguraldi txarrak erabat baldintzatu zuen espedizioa: "Eguraldiarekin ez genuen zor-terik izan. Elur asko bota zuen; arrastoren bat eginez gero hurrengo egunerako estalita zegoen eta horrela ez zegoen ezer egiterik. G-2ra igotzeko denbora agortu zitzaigun eta ahal genuenok hegazkina atzeratu genuen. Beste batzuek, baina, etxera itzuli behar izan zuten".

PUBLIZITATE GUTXI

Uztailaren 26an Alberto Iñurragatik, Jon Belokik eta Jose Car-

los Tamayok G-3an egindako lortenaren eta Edurne Pasabanek eta Juanito Oiarzabalek K-2an lortutakoaren berri eman zuten komunikabideetan. Egun horretan bertan, baina, mondragoetar bat ez zegoen oso urrun, G-2 mendiaren tontorrean, hain zuzen: "Beste espedizio batzuk bezala, guk ere uztailaren 26an egin genuen tontorra. Tontorrera iristean zer sentitzen den azaltzea ez da erraza. Poztasuna gero dator; tontorrean jaitsiera dago buruan; gogoratzen dudana da ondo iritsi nintzela, indarrez nengoela".

Bittorrek eta espedizioko lagunek bi egun behar izan zituzten lehenengo kanpamenturaino jaisteko: "Jaisterakoan ez genuen aparteko arazorik izan. Argazkiak ateratzeko eskularruak kendu genituenean eskuak hoztu egin zitzaizkigun, eta sentsibilitate apur bat galdu genuen. Horrez gain, ez tul asko izan genuen, eta glaziarretako batean galdu ere egin ginen, baina jaitsiera ona izan zen. Arazo horiek guztiak desagertu egiten dira

lehenengo kanpamentura iritsitakoan. Uztailaren 28an iritsi ginen behera, goizeko lauretan".

Behoko kanpamentuan zeuden espedizioen artean izan zen giro ona azpimarratu zuen Bittorrek: "Lehenengo kanpamentuan jende mordo zegoen, hainbat espediziotako berrehun bat lagun izango ginen han, eta giro oso ona izan genuen. Alde horretatik, eskerrak eman gura diet Alberto Iñurragatik eta bere espediziotakoiei. G-2ra eta G-3ra joateko bide bera hartu behar da, eta banatu ginen arte eurek ireki ziguten bidea, gu baino indartsuago zeuden-eta".

Lehenengo zortzimilakoa egin eta gero beste asmorik batorite duen galdetzerakoan hauxe Bittorren erantzuna: "Gurako nuke Cho Oyura igo eta eskia-tzen jaitsi, baina hori asmoa baino ez da, ikusi egin behar. Espedizio honetan geure poltsikotik ordaindu dugu ia dena, eta hurrengoak babesleekin izan beharko du, loteria tokatzen ez bazaigu behintzat".



XABIER URZELAI

Ekain hasieran eman zigun Bittor Amozarrainek espedizioaren berri.

HIZKUNTZAK DENONTZAT

● haur, gazte, helduentzat

Ikastetxeko irakasgaien laguntza-eskolak (ingeleza, euskara, hizkuntza, matematika...)

- Maila guztiak eta ordutegi malguak
- Multimedia sistema
- Mediateka dohan
- Ikaslearen banan-banako jarraipena
- Ordenagailu gela eta internet
- Atzerriko ikastaroak eta ingeleseko udalekuak
- Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan

Matrikula epea zabalik



Arrasate - Gipuzkoa
Avda. de Álava, 4 • Tel.: 943 71 20 55
e-mail: secretaria@cim-idiomas.com
www.cim-idiomas.com

bai & by



Kooperatiben eta immigrazioaren gaineko liburu bat argitaratu gura dute

IKER BARANDIARAN


Arrasateko Udalak kooperatiben eta immigrazioaren gaineko liburu bat argitaratu gura du. Martin Calvo arrasatearrak horren gaineko tesia egin zuen, eta Udalak interesa du hori argitaratzeko.

2003ko abenduan Martin Calvo arrasatearrak *Immigratioaren integrazioa eta Kooperatibismoa Arrasaten* izeneko tesia aurkeztu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Tesiak 800 bat orri ditu eta oso nota altua jaso zuen. 2003aren bukaeran, Calvok Udalarari lan horrekin liburu bat argitaratzeko proposamena egin zion. Udalak begi onez ikusi zuen gaia bera eta baita lana ere. Udal batzordeak adostu ostean, baiezkoan daude eta xehetasun batzuk zehaztea besterik ez da falta.

LANA, LIBURURAKO MOLDATUTA

Aurtengo lehenengo lau hilabeteetan Calvok tesi hori liburuan argitaratzeko moldatu du. "Oso lan zientifikoa da, eta irakurgarria eta erakargarria izatea komeni zen", argitu zigun Calvok. Liburuak 250 bat orri izango ditu, eta hasiera baten gazteleraz bakarrik argitaratuko dute. Asmoa da aurrerantzean euskarazko beste edizio bat kaleratzea.

Martin Calvo oso pozik dago liburu Arrasateko Udalak argitaratu behar duelako. Hala ez balitz, bere kasa argitaratzen saiatuko litzatekeela dio, baina ilusioa egiten dio bere jaioterriko Udalak kaleratzea.



ARRASATE IRUDIAK

Debagoieneko industrializazioak garrantzi handia dauka.

Egileak aztertu du 1950etik aurrera Espainiako Estatutik Debagoienara etorri diren etorkinen giza integrazioa. Enpresa motaren arabera, etorkin horiek izan duten integrazioa konparatu du. Calvok ondorioztatu du kooperatibaren ezaugarri propioek etorkinen integrazio ekonomikoa lortu dutela, eta horren bidez, giza integrazioa.

Horrez gain, giza talde konkretu horri gainbegiratu egingez, gizaratearen erretratua egin du. Debagoiena oso eskualde industrial da, eta bertara Espainiako Estatuko migrazio handia etorri da.

Eskualdea gainbegiratzeaz gain, kooperatiben bertuteak eta hutsuneak ere azpimarratu ditu lan horretan.

Jokin Zaitegi euskaltzalea hil zenetik 25 urte igaro dira

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Abuztuaren 17an 25 urte bete ziren Jokin Zaitegi idazle eta itzultzailea hil zela. Josemari Velez de Mendizabalek euskal literaturan zeresan handia eman zuen gizon horren gainean idatzi du:

"Ez al zarete konturatu gizaki asko lur azpian hazi egiten direla? Bizi izan ziren bitartean jaramon handirik eskaintzen ez bazitzaie ere, hil ondoren dena bilakatzen zaie laudorio eta omenaldi. Hamaika eredu jar genitzake horretaz. Gaurko kasu honetan ez dakit horrela jazo den. Dakusagun: hogeita bost urte bete dira abuztuaren 17an Jokin Zaitegi zena joan zitzaigunetik. Mende laurdena igaro da ordudanik eta ez dago jakiterik arrasatear bikain haren tamaina handitu den ala euskal literaturako azken kixotearen itzal txikia bere azken hasperenarekin batera betiko itzali ote zen.

Zaitegi hil zenetik dezente idatzi da berataz eta izena bera ere pixka bat ezagunagoa egin da, Arrasaten behintzat plaza bati Jokin Zaitegi izena eman baitziztaion. Oker ez banago, Erguineko ikastola batek ere haren deitura hartu zuen. Bailarako ikastolen inguruan, diodan harira datorrelako, aukera eder bat galdu zela lokinen irudia behar moduan ohoratzeke, haien kontzentrazioa eman zenean hautatutako izenaren ordezkari asko egokiagoa baitzen Erdiko Kalean euskaltzale porrokatuarena. Baina...

Dena den, seguru nago Zaitegik amesturiko Euskal Herria —oraingoz behinik behin— esnateke dagoela. Esnarazi behar al zaio? Nori dagokio ariketa hori? Lokinek Euskal Herri euskaldunari (errudantzia, omen) begira egin zuen lan bere bizitza osoan. Une txarretan dirua eta gogoa inbertituz. Unerik goxoenetan, berriz, osasuna eta esperantza.

Ikastola Nagusirako —berak Euskal Unibertsitatea adierazteko erabili ohi zuen deitura jardun zuen etengabe, euskarazko tesitak egokituz, greko eta latinaren klasikoetan oinarrituta. Merezki izan al du ahalegin esker ga hark? Oso eszeptikoa naiz alde horretatik.

Sarri jotzen dut Zaitegiren idazkietara, euskalgintzako argidorre ederrak dira eta. Goi mailako testu guztiekin bezala, irakurketaren hastapenetan kostatu egiten zait abiadura gozagarria hartzea. Hausnarketa beharrezkoa izan ohi zait, mezuaren nondik norakoaz behar moduan jabetzeko. Baina, zinez, saiatu ondorengo saria primerakoa gertatzen da. Lokinek berak bazekien jakin bere literatura ez zela edozelan irensteko modukoa. Esfortsua ezinbestekotzat jotzen zuen Lokinek, berak borobildutako testuetan murgil ahal izateko. Nik zalantzak dauzkate euskal gizarateak egun esfortzu hori egiteko duen borondateaz. Espazio eta eszenatoki berriak irabazi diren arren, bideko loreak murrizak dira oraindik.

Hogeita bost urte dira, beraz, Jokin Zaitegi joan zenetik. Arrasatear handi hark ez zituen fariseoak maite eta publikanoekin lan egitea nahiago izan zuen beti. Alde horretan ere nabari zitzaion Bidalia —Apostolua, berak itzultzen zuen moduan— izatearen ezpala. Nik, gaur, bere adiskidetasunarekin sariztatu ninduen nire maisu haren gaineko lerro xume hauek idatzi nahi izan ditut, behintzat efemeridea gogora dezagun".

"Sarri jotzen dut Zaitegiren idazkietara, euskalgintzako argidorreak dira eta"

Amaia antzokiko film eskaintzaren balorazio positiboa egin du Udalak

I.B.

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak Amaia Udal Antzokiko film eskaintzaren gaineko balorazio positiboa egin du. Aldaketa batzuk aurreikusi dituzte, baina irailean bertan filmak emateko asmoa dute.

Alai zinema-areto pribatua itxi ondoren, Udalak erabaki zuen Amaia Udal Antzokian filmak ematea. Ordura arte, eguenero zinekluba ematen zuten, baina Udalak aldatu egin zuen programazioa. Zinekluba —film berezien emanaldiak— egubakoitzera pasa zuten; zapatu, domeka eta astelehenetan, berriz, film komertzialak eman izan dituzte. Eta behin sei hilabeteko froga-epea amaituta, horren balorazioa egin zuten.

Otsailean izan ziren ikusle gehien —4.340 lagun—, baina urtarrilean —2.832— eta mar-

txoan —2.553— ere jendetza joan zen Amaia Udal Antzokira. Film ikusienak honako hauek izan ziren: *El último samurai*, *Te doy mis ojos*, *Las chicas del calendario* eta *El señor de los anillos*, hurrenez hurren.

IRAILEAN, FILM KOMERTZIALAK

Uztailaren bukaeran, Monterron parkeko lanek emanaldietan eragin zuten, eta bi egunean bakarrik eman zituzten filmak.

Une honetan Kultura Salla aurtengo ikasturteko eskaintza

Udalaren asmoa da ikasturte honetan, lehen bezala, zinekluba eguenera egitea

aztertzen dabil, eta seguruenik hainbat aldaketa egingo dituzte. Hala ere, irailaren erdialdean Amaia Udal Antzokian film komertzialak emango dituztela aurreratu dute.


Udaleko arduradunak emanaldien ordutegia gainbegiratzen dabilta, eta ikusleen kexa eta proposamenak kontuan hartu dituztela azaldu digute.

ZINEKLUBA FINKATU

Kultura Sailak azpimarratu du bere asmoa dela ikasturte honetatik aurrera zinekluba eguenera ematea. Horren aldeko eskaera asko izan dituzte eta aintzat hartu gura dute hori.

Hori bermatzeko, Udalak aztertu beharko du filmak eguenera astelehenera emango dituen edo horietako egunen bat kendera duen.

Bestalde, Udala pozik dago eman dituen filmekin eta izan duen harrerarekin.



Jokin Zaitegik ondare erraldoia utzi dio euskal kulturari.

GUREGAIK/ BIDAIEN GAINKO INFORMAZIOA

'Gomendatzen dut' bidaien lehiaketan esku hartzeko aukera

IKER BARANDIARAN

Oporretan izan zarela, eta ezagutu duzun herrialdearen gaineko aholku edo gomendioak emateko moduan zaudela? Ba, irailaren 24a aurretik, aukera duzu Gazte Bulegoaren lehiaketan esku hartzeko.

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko gazte informazio bulegoek lehiaketa berezia antolatu dute. Oporretatik bueltan, oporretan ikusitakoaren eta bizitakoaren gaineko gomendioak jasotzeko lehiaketa asmatu dute. Parte-hartzaileek ekainaren 14a ezker daukate gomendio horiek bidaltzeko aukera. Hain zuzen ere, irailaren 24ra arte aurkeztu ahal izango dituzte gomendioak hiru

gazte bulego horietako edozeinetan. Oraindik garaiz zabilzate!

PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN ZOZKETA

Behin gomendio guztiak jasota, irailaren 30ean, Arrasaten esku hartzen duten lagunen artean zozketatu egingo dute bi lagunendako asteburua landetxe baten. Oñatin eta Bergaran gauza bera egingo dute.

Lehiaketa original horren bitartez, Arrasateko, Oñatiko eta Bergarako bidaiariek ezagutu dituzten ostatu, leku, herri, mendi, aterpe, ibilbide edo dena delakoen gaineko gomendioak —orokorrean informazio interesgarria— emango dituzte. Informazio guztia gazte informazio bulegoetan izango dute, gura duenaren dako eskuragarri.



ARRASATE PRESS

Herriko bidaiarien aholku eta gomendioak oso baliagarriak izango dira.

Gazte Bulegoko arduradunak azpimarratu du lehiaketa horren bitartez jasoko den informazioa oso baliagarria izango dela aurrantzean leku horietara joan gura duenarentzat.

Ikasleak buru-belarri dabilta liburu artean

I.B.

Langileok kexatu egiten gara lanera bueltatu behar dugulako, baina zenbait ikasleri ere gogorra egiten zaie oporretatik bueltatzea. Askok irailean izango dituzte azterketak, eta buru-belarri dabilta.


Ezagun da hainbat gaztek sakrifikatu egin dituztela oporrek. Irailean hainbat azterketa zain dituzte eta horiek gaintzea dute helburu. Horregatik, udan eguzkitik babestu eta gerizpean ikasteari

ekin diote. Beste asko, berriz, azkeneko txanpan hasi dira liburu artean ikasten.

Orain dela gutxi ikasteari ekin diotenen eta materiala gainbegiratzan dabilzanek Mondragon Unibertsitateko liburutegietan eta Monterronen egiten dute bat egunotan.

IRAKASLEEKIN, AKADEMIETAN

Beste askok irakasleen laguntza eskertzen dute, eta horregatik akademietan dabilta ikasgaiei azkeneko gainbegiratuak egiten. Ea, bada, emaitzak onak diren!



I.B.

Ikasle askok Monterronen egiten dituzte goiz eta arratsaldeak.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak


Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

KUTXAK LITERATUR LEHIAKETA ANTOLATU DU
Literatur sorkuntza eta hedapena sustatzeko asmoz, Kutxak Donostia Hiriko Literatur Sariketa-rako dei egin du. Ipuinak eta antzerki lanak aurkeztu beharko dira, eta lanak urriaren 25a baino lehen honako helbidera bidali behar dira: GUDAT Illarra bidea 4. 20018. Donostia. Irabazleen izendapena eta sari banaketa 2005eko urtarrilean egingo dituzte. Argibide gehiago gura izanez gero, deitu 943 00 08 50 telefonora.

BEGIRALE IKASTAROA TXATXILIPURDIN
Txatxilipurdik begirale ikastaroa antolatu du. Urritik ekainera bitartean egingo dute, zapatuetan. Derrigorrezkoa izango da 18 urte baino gehiago izatea edo 2005ean betetzea. Interesatuek 300 euro eta aterpetxeko gastuak ordaindu beharko dituzte. Informazio gehiago 943 79 54 46 telefono zenbakian.

EUSKAL HERRIKO I. GRAFITI LEHIAKETA
Euskal Herriko I. Grafiti lehiaketan esku hartu gura dutenek irailaren 25era arte dute epea marrazki-zirriborroak aurkezteko. Honako helbidera bidali behar dituzte: Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa. Arlozabal 8 bis.1C. 48220. Abadiño. Bizkaia. Honako datuak eman behar dira: lanaren titulua, koloreen deskribapena eta egilearen datuak eta helbidea.

ZAHARREN ETXETIK



lazko urrian estreinatu zuen egoitza Arrasateko Nagusilaneak.

IKER BARANDIARAN

Nagusilan elkarteak ez du atsedetik hartu gura izan abuztuan

IKER BARANDIARAN

Premia duten erretiratuei laguntasuna eskaintzen die Nagusilan elkarteak. Elkarte bera erretiratuei osatuta dago. Besteei laguntzeko denbora hartzen dute eta lan hori boluntario moduan egiten dute.

Abuztuan ez dute atsedetik hartu gura izan. Jakin badakite hirugarren adineko lagun askok abuztuan premia berak edo gehiago dituztela, eta ez zituzten horiek bisita barik utzi. Gaur egun hogeit bat boluntariok osatzen dute elkarte, eta horietatik hamar bat ibili dira abuztuan lanean. Duda barik, izan dute zer egin eta zeini laguntasuna eskaini hilean.

ITURBIDEN, AITA MENNIN, ETXEETAN

Nagusilan elkarteko boluntarioek, batez ere, Iturbide egoitzan eta Aita Mennin eskaintzen dute zerbitzua. Iturbidera ia goizero joaten dira, mezara joan gura dutenei laguntzera. Horrez gain, arratsalde batzuetan ere bisita egiten

diere, eta egubakoitzetan, bingoan jolasten dute egoiliarrekin. A ze giroa egoten den!

Aita Mennira ere astero joaten dira. Han bizi diren nagusiak bisitatzen dituzte, eta eurekin kartetan egiten dute, paseatu egiten dute, berriketan egiten dute... Gustura hartzen dituzte

Urte eta erdi sortu zenetik

Orain dela urte eta erdi sortu zuten Arrasateko Nagusilan elkarteak. Ibarreko lehena izan zen —duela gutxi, Oñatin eta Bergaran sortu dituzte—. Hasieran ez zuten egoitzarik, baina ahal zuten moduan antolatzen hasi ziren. Urrian estreinatu zuten egoitza. Arrasate pasealekuan daude, 3. zenbakian, edo honako telefono zenbakian: 943 79 25 85 (Tomas).

Nagusilan elkarteko gizon-ema-kumeak.

Aspaldi honetan elkarteak San Juan de Dios ospitalean ere lagundu gura du, eta horretarako ordezkari batzuk ospitaleko arduradunekin elkartu dira. Batez ere, jakin gura dute ospitalean zenbat nagusi dauden eta zein premia dituzten. Hasteko, herenegun, irailaren leian, kontzertua antolatu zuten han. Donostiako Jose Mari Soroak gitarra jo zuen, eta oso harrera ona izan zuen.

BAKOITZAK GURA DUENA EMAN

Nagusilaneak lanean jarraitzen du eta aipatutako ospitale eta egoitzaz gain, etxe batzuetan ere laguntza eskaintzen du. Gizabanako batzuek laguntza bila elkartera jotzen dute zuzenean eta beste batzuek Udaleko Gizarte Sailaren bitartez. Elkarteak ahal duen laguntza eskaintzen du.

Elkarte hogen bat boluntariok osatzen dute, eta bakoitzak ahal duena laguntzen du. Inork astean bi ordu eman gura balitu ere, eskertuko lukete.

LABUR

Galiziar bidaia eta Donostiara txangoa Abaroa elkartearen eskutik

Irailaren 12tik 19ra bitartean, 110 arrasatear Galiziar joango dira. Abaroak antolatu du bidaia. Egonaldia Portonovoko Piramide hotelean egingo dute, baina horrez gain, honako herriak bisitatuko dituzte: Santiago, Vigo, O Grove...

Bestalde, irailaren 23an Donostiara joko dute. Goizean Donostian ibiliko dira eta bazkaria Zestoako Arozena hotelean egingo dute. Martitzenean, hilaren 7an, eman beharko dute izena.

Dagoeneko hasi dituzte erretiratuen elkarteetako ohiko ikastaroak

Herriko lau erretiratuen elkarteek hainbat ikastaro egiten dituzte ikasturtero. Oporren atsedendia ostean, indarberrituta, ikastaro horiek martxan jarri dituzte. Matrikula berri gura duenak edo lehenengo aldiz izena eman gura duenak elkarte bakoitzeko bulegora jo beharko du lehenbailehen. Horretarako, ez da derrigorrezkoa elkarte horietako bazkide izatea, ateak herritar guztiendako zabalik dituzte-eta.



Antzuolar bi gastronomia finalera

Oporren aurretik, uztailaren 21ean, Debagoieneko erretiratuen gastronomia txapelketa egin zuten Abaroa elkartearen. Aretxabaletako, Antzuolako eta Arrasateko erretiratuek esku hartu zuten, eta irabazleak honako hauek izan ziren: Juanita Urbisondo eta Mari Cruz Lezeta, biak hala biak antzuolarrak. Epaimahaiaren esanetan, bikote horrek egin zuen arratsalde hartako marmitako goxoena.

Urriaren 14an, bikote horrek Debagoiena ordezkatzeko Donostiako Altza auzoan egingo den finalean. /I.B.



Taberna Berri jatetxea

Durana 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67



Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32



EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zein lantegi bota dute orain dela gutxi Eskualde Ospitalearen parean?
Arrastoa: lantegi berak beste eraikin bat dauka Kataide industrialdean.

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

RAM esnea
Litro bateko brika

0,55€ 92 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

XABIER LEUNDArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Xabier!
Galderen erantzun zuzena:
Seber Altuben, Franziskotarren eliza ondoan.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasateko ur eskasiaren sorrera eta amaiera

'NIRE HAURTZAROKO...' / VELEZ DE...

Orain dela urte batzuetako ohituren gainean berbetan jardunez, oraingo honetan, ur kontuak ditugu berbagai:

"Sarri galdetu diot nire buruari, nola arraio bizi gintezkeen gortzeko garbiketari hain ur proportzio eskasa eskaintzen geniola. Egia borobila da garapenak aldaketa sakonak eragin dituela geroko gure usadioetan. Urte haietan, ordea, kasu banaka batzuen salbuespenaz, dutxa edo bainua hartzea guztiz ezina zen... etxeetan bainugelarik ez zegoelako. Beraz, ez zen premiari, ezagutzen ez denak ez baitu beharrik sorrazten eta, hain zuzen, horixe gertatzen zen garaiko etxerik gehienetan. Nolako zen gure garbiketarako sistema? Horratx erantzun guztiz pertsonala behar duen galdara; dena den, inork zikin hutsak ginela pentsa ez dezan, etxeetako ontzirik erabilienetakoak galbanizatuzko pertzak zirela gogoratu nahi dut, neurri guztietakoak, eta gutxienez astean behin martirio hartatik pasatu behar genuen, amak -pazientzia eta kontu handiz- ontzi haietako batera sarrazten gintuenean, burutik burutuntzali batez ura botatzeko. Nagu-



ARRASATEKO UDALA

1956ko irailean inauguratu zuten Aretxabaletako Urbaltzetik ura ekartzeko hoditeria.

siek eguneko ordu txikiak aprobetxatzen zituzten euren garbiketara pertsonala egiteko, etxeko gazteen begirada salatarietatik aske. Arrasaten bizi zen biztanleen hazkundeak ur edangarriaren urritasuna gorriagotu zuen. Santa Barbarako gordailuan biltzen

"Nagusiek eguneko ordu txikiak aprobetxatzen zituzten garbiketara pertsonala egiteko"

zen Meatzerrekako iturburuko jarioari, Aretxabaletako Urbaltzekoa gehitu behar izan zitzaion 1956an. Baina horrela ere laster ahitu zen emaria eta bi urte beranduago Eskoriatzako Bolibar auzoraino iritsi zen proiektu berri baten hoditeria. Dena dela, gazte-

agoek ongi oroituko duten bezala, 70. hamarkadaren azkenera arte itxaron behar izan zen, Urkuluko urtegiari esker Arrasateko ur eskasiaren arazoa, oraingoz behintzat, bukatutzat emateko.

Atzean geratu ziren ur zerbitzuko eten etengabeak. Amaitu zen kaleko iturri publikoetara jaitsi behar kronikoa: Gazteluondokoa, Zaldibarkoa, Kontzeziñoko *La Rana*, Ferixalekoa... genituen ezinbesteko topalekuak etxeetako kanilak lehor ageri zirenean, nor bere kubo edo antoisinekin. Eta zer gertatu zen garbitoki publiko haiekin? Zarugaldekora bezala, Kontzeziñokora, San Jose ikastetxe azpikora edo Musakolara ere biltzen ziren gure ama eta amandreak, era guztietako oihaal eta arropak eramaten zituztelarik, galbanizatuzko azpiltzar borobiletan, ura etxeetara normaltasunez iritsi ez zen bitartean. Gaur egun uholdaurrekoak irudi dakizkigukeen lehen garbigailu erdizkuzko haiek merkatura agertu zirenean iragan haintzatsuaeren beste kapitulu bat ixten zen. Garbitoki publikoen desagerpenarekin, informazio orokorrerako etxe-koandreen sarearen gune aproposak betiko joan ziren. Baita gaztetxo askok euren lehen zigarroa erretzeko aukeraturiko tokiak ere".

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko irailaren 3a / 119. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Laster esleituko dituzte babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lanak

UBANE MADERA

Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko urbanizazio lanak ia bukatu dituzte; erreka-ko paretaren gaineko erabakia hartzea falta zaie. Era berean, hil honen 16an bukatzen da etxeok eraikitzeko enpresa eraikitzaileen proposamenak jasotzeko epea.

Abuztuan lan eta lan ibili dira Amenabar enpresakoak babes ofizialeko etxebizitzak eraiki behar diren lekuko urbanizazio lanak egiten (argindarra, ura, saneamendua...sartzen). Are gehiago, Udaletik jakinarazi digutenez, dagoeneko ia bukatu dituzte lanak, azken xehetasunak egitea besterik ez zaie falta; eta errekan eraikitako paretarekin zer gertatuko den jakitea.

Kontua zera da: urbanizazio lanak egiteko garaian, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak ez ziola baimenik eskatu Jaurlaritzako Uren Sailari erreka-ko paretara dagoen etxeok eraikitzea. Horrela, eta gertatutakoa jakin zuene-



Babes ofizialeko etxebizitzendako azpiegiturak sartzeko lanak ia bukatu egin dituzte abuztuan.

an, Jaurlaritzako Uren Sailak gerarazi egin zituen erreka-ko paretako lanak. Orain, gai horren gaineko behin betiko erabakia hartu beharko dute Jaurlaritzako bi departamentuok. Hori egin

arte, ez dituzte urbanizazio lanak guztiz bukatuko.

LEHIAKETA IREKIA

Edozelan ere, eta nahiz eta urbanizazio lanetan geldialdia izan,

babes ofizialeko etxebizitzaren proiektuak aurrera segitzen du. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak etxeok eraikitzeko lehiaketa irekia deitu zuen. Hain zuzen ere, hil honen 16an itxiko dute zabaldu-

tako epea. Tarte horretan, etxebizitzak eraikitzeko interesa duten enpresa eraikitzaileen proposamenak jasoko dituzte. Gero, jasotako proiektuak aztertu eta erabaki beharko dute zein enpresari esleitu lanak. Hori guztiori egin ostean hasiko dira eraikitze lanak egiten. Aramaioko Udalarren nahia da lehenbailehen hasitea etxeak egiten, baina halako kontuak normalean poliki gaitatu ohi dira.

ETXEBIDEREN BITARTEZ

Guztira babes ofizialeko 44 etxebizitza eraikiko ditu Eusko Jaurlaritzak Aramaioko Pedro Ignacio Barrutia kalean. Horietatik 40 errepedearen goiko aldean eraikiko dituzte eta gainerako laurak erreka inguruan.

Gero, eta gainerako herrietan egiten duten moduan, etxebizitzak zozketatu egingo dituzte, Jaurlaritzako Etxebide izeneko zerbitzuan izena emanda dutenen artean. Hori bai, etxebizitzetatik lau edo zailtasunak dituztenentzako izango dira eta gainerakoan artean erdiak aramaioarrendako.

Nazioarteko abesbatzak Araban barrena ibiliko dira

U.M.

Vital Kutzako Gizarte-Ekintzak antolatuta, nazioarteko zenbait abesbatza Araban izango dira datozen egunotan, kontzertuak egiten. Tartean, datorren irailaren 8an, Aramaion.

Argentinako, Bulgariako, Filipinetako, Hungariako, Moldaviako, Poloniako, Portugalgo eta Errusiako abesbatzak Araban ibiliko dira datozen egunotan. Vital Kutzako Gizarte-Ekintzak antolatuta, Abesbatzen XXIII. Astea egingo dute. Hain zuzen ere, irailaren 3an hasi eta 9ra arte kontzertuak egingo dituzte Arabako zenbait herritan.

Eta, horien artean, Aramaiora ere ekarriko dute abesbatza horietako bat: Moskuko Ars Viva taldea. Pavel Karpov da Errusiako abesbatza horren zuzendaria. Batez ere, XV. eta XX.

mendeko Errusiako musika erlijioso eta herrikoia interpretatzen du Ars Viva abesbatzak. Baita beltzen kantu espiritualak eta pop musikan oinarritutako kantuak ere.

Aramaioko kontzertua parrokian izango da, 20:30ean hasita.

GUZTIAK BATERA

Horrez gainera, abesbatzen astea amaitzeko, zapatuan (hilak 4) eta barikuan (hilak 10) abesbatza guztiak kontzertua egingo dute Gasteizen. Bihar, zapatua, San Migel parrokian izango da. Abesbatza bakoitzak kantu erlijioso bana interpretatuko du, 10:30ean hasita. Eta hurrengo barikuan, 20:00etan hasita, abesbatzen kontzertuez gain, Gasteizko Musika Bandaren saioa izango da eta horren ostean, aurtengo Urrezko Zeledoa emango dute. Printzipal antzokian izango da hori guztia.



Marixeka Eguna da domekan

Ohiturak agintzen duenari jarraituz, etzi, domeka, ospatuko dute Marixeka Eguna. Elkarteko kide Jesus Maria Balantzategik jakinarazi digutenez, eguerdian hasiko da ospakizuna, mezarekin. Horren ostean, hamarretakoa egingo dute (salda, txorizoa...) eta barruak berotu ondoren, Vermouth dantza, Gardoki Anaïen eskutik. Gero, elkarreko bazkideek bazkaria egingo dute, eta arratsaldean, ostera ere dantzaldia izango da Gardoki Anaïekin. Era berean, Gorritiren animaliak hantxe ibiliko dira umeen gozamenarako. Marixeka elkarreko bazkideek antolatu dute jaja, eta haiek gonbidapena egin gura diete herrikideei eta ingurukoei Marixeka Egunaz gozatzera joateko. /U.M.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Batika	945 44 50 03
Udaletekoa	945 44 50 16
Erzaizta (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Pistetea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

Barikuroko hitzorduari kale egin barik, gaur, 22:30ean, *Bajo el Sol de la Toscana* komedia izango da kultura etxean. Andrey Wells zuzendariaren filma da, AEBetako. Aktoreen artean, besteak beste, Diane Lane, Lindsay Duncan, Mario Monicelli eta Vincent Riotta daude. 103 minutu irauten du filmak.

UMEAK ESKOLARA

San Martin eskolako pertsianak oraindik ere itxita dauden arren, geroago eta gertuago dute Aramaioko gaztetxoek ikasturte berria. Hain zuzen ere, datorren eguaztanean, hilak 8, hasiko dira eskolan.

KZGUNEAK ZABALIK

Oporraldiaren ostean, lehengora itzuliko da kultura etxeko KZGunea. Hau da, liburutegiaren ordutegi berean izango da zabalik eta ikastaroak egingo dituzte, betiere, jendeak parte hartzeko izena ematen badu. Horrez gainera, KZGunearen arduraduna 15ean behin Aramaion izango da.

Laster zabalduko dute udal kiroldegia

UBANE MADERA

Data zehaztu barik izan arren, irailean zabalduko dute kiroldegia. Izan ere, oporretara joan aurretik, Udalak esleitu egin zituen falta ziren udal zerbitzuak: kontagailuen irakurketa, kiroldegiaren kudeaketa...

Oporren aurreko azkeneko udalbatzarrean esleitu zituen Udalak falta zitzaizkion udal zerbitzuak: enterramenduak, kontagailuen

irakurketa, ur eta saneamenduaren mantentze-lanak eta kiroldegia kudeatzea, besteak beste. Azken horren kasuan, Murgiako enpresa bati eman diote kiroldegiaren ardura. Hala, jakinarazi digute kontratua eta halako burokrasia kontuak zehaztu ostean zabalduko dute udal kiroldegia. Oraindik ez dute zabalteko datarik zehaztu, baina lehenbailehen zabalteaz da Udalaren asmoa; jakina, irailean egingo dute hori.



Murgiako enpresa bati eman diote kiroldegiaren ardura.

BOTEPRONTOAN/ Rakel Arriolabengoa · Azkoagako eta Zabolako auzo alkatea

“Azkoaga nahiko auzo bizia da, jende gaztea dago, umeak, taberna bi... Horrek bizitasuna ematen dio”

Azkoaga eta inguruetara jo dugu oraingo astean auzo alkate bila. Rakel Arriolabengoa aurkitu dugu, auzoaren gainean berba egiteko gertu:

Azkoagan bizi zara, baina sortzez ere azkoagarra zara?

Ez, kalekoa naiz. Ibargoikoa. Orain, Azkoagako abadetxean bizi naiz.

Auzo alkate aukeratzen zaituzten lehenengo aldia da? Zela hartu duzu lan berria?

Lehenengo aldia da, bai, eta sorpresa handiarekin hartu dut; izan ere, ez nuen espero inondik inora halako kargurik.

Eta lan handia aurreikusten duzu datozen lau urteotarako?

Ez. Azken batean, auzo alkateak Udaleko mandataria besterik ez gara. Bestalde, auzoan badira gauzatxo batzuk konpontzeko (eskola...), baina ez asko. Betiere, batzarren bat egin behar izaten da auzotarren artean, eta horixe da lanik handiena.

Dena dela, aipatutako moduan, zereginen bat baduzu: eskolan, adibidez, zer egin behar duzue?

Auzoko eskola dela-eta, batzarra egin genuen Udalekoekin eta hitzarmena lortu genuen, eskola konpontzeko. Udalak dirulaguntza eskatu zuen konponketa



“Zabor inguruak zainduta egon daitezkeen eskatu dugu, askotan oso zikin egoten dira-eta”

LABUR

Santa Ana ermitako lanak bukatzeko lorategi lanak egitea besterik ez da falta

Santa Ana ermita ondoko lanak bukatzeaz daude. Errekako paretan berritzen ibili dira azken hilabeteotan. Hain zuzen ere, errekako paretan bera eginda dago. Orain, errepide ondoko paretan konpontzea eta lorategi lanak egitea besterik ez da falta. Udaletik jakinarazi digutenez, irailean eta urri hasieran egingo dituzte lan horiek.

Datorren astelehenean aukeratuko dituzte koadrilako dinamizatzaile soziokulturalak

Astelehenean aukeratuko dute zein arduratuko den Zuiako Koadrilako dinamizazio soziokulturalaz. Kontua da orain arte Legutianok eta Murgiako euren dinamizatzaileak zuzentzen. Baina orain bi herri horiek erabaki dute koadrilak eskaintzen duen zerbitzuekin bat egitea. Horren ondorioz, koadrilak handitu egin behar du zerbitzua; izan ere, orain arte pertsona bakarra ibili da lan hori betetzen (Zuriñe Zabala). Hala, lehiaketa irekia deitu zuen horretarako. Hain zuzen ere, joan den astean bukatu zen eskaintzak jasotzeko epea eta, esandako moduan, astelehenean erabakiko dute zeini esleitu zerbitzu hori.

Etnografiaren gaineko argazki lehiaketa antolatu du Zuiako Koadrilak

Gure etnografiari begirada izenburuarekin, argazki lehiaketa antolatu du Zuiako Koadrilak. Interesa duen edozeinek parte har dezake, betiere, Aramaion, Arrazua-Ubarrundian, Legutianon, Urkabustaizen, Zigoitian edo Zuian erroldatuta badaude. Interesa duenak datorren urriaren 29a baino lehen aurkeztu beharko ditu egindako argazkiak.

horiek egiteko eta orain laguntza horien zain gaude. Espero dugu irailean erantzuna jasotzea eta hala bada, diru horrekin konponduko dugu eskola, ustez, udazkenean.

Eskolaz gain, baduzue beste beharren bat auzoan: gasa, saneamendua sartuta dituzue?

Gasa Zabolako sartuta dago, baina Azkoagan ez. Kontua da Azkoagara gasaren proposamena iritsi zela saneamendua egin eta handik urtebetera. Horren ondorioz, gasa sartzeko berriro ere zabaldu behar zuten zanga. Gauzak horrela, Udalak proposatu zuen auzotar bakoitzak dirua ordaintzea gasa etxeraino ekartzearen, baina dirutza handia zen. Hori da betiko arazoa: auzoetan, askotan, nahiz eta kontribuzioak-eta beharrezko guztiak ordaindu, kaletarren moduan, bestelakoetarako ez da berdin funtzionatzen. Izan ere,

kalean sartzen dute gasa eta guztien etxeraino doa; auzotar bakoitzak engantzea ordaintzen du eta kito. Baina auzoetan horiek lanok egitea dezente garestiagoa denez, gero diru alde hori auzotarrok ordaindu behar izaten dugu. Auzoetan asko eskatzen da auzo-lanean gauzak egitea, eta hori oso ondo dago, garai batean bazuen zentzua, baina gaur egun ez. Zenbait auzotan oraindik funtzionatzen du, baina orokorrean geroago eta auzolan gutxiago dago. Izan ere, gizartea eraldatzen doa eta orain ezin dira eskatu lehen eskatzen ziren gauza berak.

Eta errepide aldetik-eta? Untzillako bidea oso txarto egon zen eta petatxatu egin zuten. Orain, Azkoagako bidea ere petatxatu dute. Kontua da asko erabiltzen diren errepideak direla, eta ondorioz, kalte asko izaten dituztela. Bestalde, plazan bizi garenok ikusten dugun beste arazo bat da aste bukaeretan autoen joan-etorri handia izaten dela eta, gainera, abiada handiarekin ibiltzen direla ibilgailuak. Hala, eskatu ditugu abiadura moteltzeko bandak, ispiluak..., baina oraindik ez zaizkigu iritsi. Zabor inguruak zaintzea ere eskatuta dugu.

“Beste arazo bat da aste bukaeretan autoen joan-etorri handia izaten dela”

ERRETRATUZAHARRA

Aranoren
ikasleen
erakusketa

Arrasateko historian izandako pertsona esanguratsuen artean, Pedro Biterik eta Felix Aranok izan zuten garrantzia aipagarria da. Pedro Biteri Arrasaten jaio zen 1833an eta bere herentziaren zati bat kulturaren hedapena bultzatzeko erabili zuen; hala, Gipuzkoan eskolak zabaldu zituen, tartean, Arrasaten, 1902an: Biteri Eskolak. Handik urte gutxira, eskolok goi-mailako ikastetxe bilakatu ziren, Felix Aranori esker.

Hain zuzen, maisu Aranoren gaineko argazkia lortu dugu oraingo asterako. Gizon hura ezagutu zutenek esan izan dute Felix Arano aparteko gizakia izan zela. Besteak beste, oso kalitate altuko hezkuntza landu zuen. Hala, horri esker, inguruko enpresek —Union Cerrajerak bereziki— hara jotzen zuten langile bila. Era berean, Biteri Eskoletako zenbait ikasle erakusketak egiten ibili ziren hainbat herritan, Eibarren eta Briviescan, esaterako. Hain zuzen, lantzen gabil-tzan argazkia Eibarren ateratakoa da, Armagintza Eskolan, 1924an. Arrasate-



ko zenbait ikasle hara eraman zituzten ikasitakoa erakustera. Honako hauek agertzen dira argazkian, besteak beste: ezkerretik hasita, lehenengo umea Guillermo Ruiz de Alegria da, haren ondoan dagoen gizonezkoa, berriz, Felix Arano maisua. Ondorengo umea, gazteena, David Artzamendi da; haren

atzean Santiago Bastida dago eta azken umea Jabier Berezibar *Montxon* da.

Aranoren ikasleek ikasi zituzten ikasgaien artean, Kalkulu Mentala zen landuenetako bat. Hala, besteak beste, 9 urteko ikasleek 30 zenbakiko batuketak egiten zekiten; baita kenketak ere, baina eskumatik ezkerre-


barik (guztiok dakigun moduan), Aranoren ikasleek ezkerretik eskumara ere egiten zituzten kenketok.

Argazkia eta informazioa: Arrasate, langileek eraikitako herria liburua
Urtea: Joan den mendeko 20ko hamarkada.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Eroski:
Maxi izatetik
Hiper izatera

Orain dela zortzi urte, arrasatearrak abuztuko oportunitatetik itzuli zirenean orduko Maxi Eroski obretan aurkitu zuten. Hiper Eroski egiteko lanean zebiltzan; eraikina handitzeaz gain, aparkalekua ere handitu zuten. Obretako arduradunen helburu nagusia zen lanok Gabonak aurretik amaitzea. Ez dago azaldu beharrik zein zen helburu horren arrazoia.



≈ 1996

Garai hartan izan zen eztabaidarik, herrian gero eta Eroski handiagoa izateak iritzi kontrajarriak sortu zituen-eta.



2004

Herritarrentzat gero eta zerbitzu hobea, baina herriko denda txikientzat gero eta zailtasun handiagoak.

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA


MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Bai, pentsatzen ari zaren
guztia egiteko gauza da.



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.



Opel Astra berria. Fida zaitez zure begiez.

Gertuagotik begira egiozu: IDSplus gidatzeko sistema interaktiboa, Sport Switch botoia kirol-gidatze hobea izateko, ECOTEC motor indartsuak, Twinport, 200 ZP-rainoko CDTI, eta faro egokituak dituen bakarra bere klasean

Proba ezazu zure Opel kontzesionarioan


Astra gama: kontsumo (l/100 km) mistoa 4,9 tik 9,1 era. CO₂ emisioa (g/km) 132 tik 218 ra

Giauto

San Andres 10 D. Tel.: 943 77 30 10. **ARRASATE**

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

Eraikuntzak

**Arrasate
eraikuntzak SL**

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora